



2.6 FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek baliabideak behar ditu funtzionatu ahal izateko. Izan ere, enpresa batek ez badu baliabiderik, ezingo du ezer eskaini ezta eskaririk jaso ere eta ondorioz, ez litzateke enpresa bat izango. Lau baliabide-mota ezberdin daude: fisikoak, intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoak, ukitu daitezken materialak dira: eraikinak, gailu elektronikoak, elikagaiak... Gure kasuan, zuhaitz-etxeak, zerbitzua kontrolatzen dugun lekua (eraikina) eta ditugun gailu elektronikoak izango dira baliabide fisikoak. Gure zerbitzuan baliabide fisikoak beharrezkoak dira zerbitzuaren eskaintza eta haren kuadeaketa egokia egiteko.

Baliabide intelektualak, webguneei eta sare sozialei lotutako materialak dira. Gure kasuan, webguneak eta sare sozialak oso baliabide garrantzitsuak izango dira eskaini behar diegun zerbitzua besteengana iristeko erabiliko dugun modu bakarra izango delako.

Beharrezkoak diren beste baliabideetako bat, giza-baliabideak dira, hau da, gizakiarekin lotutako materialak. Gure kasuan, langileak behar ditugu zuhaitz-etxeak egiteko eta zerbitzua kudeatzeko.

Azkenik, behar-beharrezkoa den beste baliabideetako bat, finantza-baliabideak dira, hau da, kapitala. Enpresa batentzat ezinbestekoak dira diru-iturriak eta kostuak, zerbitzuak eskaintzeko kostuak dituztelako eta horiek konpentsatzeko diru-iturriak behar dituztelako.